



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

ALTSASUKO ZAHARRETXEKO PATRONATUAREN ESTATUTUAK (NAO 150 zbk, 1998ko abenduak 16)

I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

1. artikulua. Patronatuaren izaera.

1.-Altsasuko "Aita Barandiaran" zaharretxeke patronatua izaera administratiboko erakunde autonomoa da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 85. artikulua babespian eratua, eta Altsasuko Idertzagain karrikako 1ean dagoen zaharretxea kudeatzeko xedea duena.

2.-Erran bezala, Patronatuak izaera administratiboa izanen du, berezko nortasun juridikoaren eta gaitasun osoaren jabe delarik bere helburuak betetzeko, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 192. artikuluari eta hurrengoei jarraikiz.

2. art. Sorrera.

Zaharretxeke Patronatua Altsasuko Udalak 1991eko azaroaren 16an egin osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez sortu da.

3. art. Egoitza.

Zaharretxeke Patronatuak zaharretxean berean izanen du egoitza, Altsasuko Idertzagain karrikako 1ean.

4. art. Patronatuaren xedea.

1.-Erakunde autonomo horren xedea zaharretxea kudeatzea da, eta zaharretxearena, berriz, zaharrak zaintzea, eta adinekoei bizitegi iraunkor eta denendakoa eskaintzea, hala beren buruaz baliatzeko maneran ez daudenean, nola laguntza behar dutenean, baita halako zainketa oso eta iraunkorra ematea, ez familiak ezta komunitateak beren etxeetan ematen ahal ez badie. Lehentasuna Altsasukoek eta bertan bizi direnek izanen dute, Patronatuko Gobernu Batzordearen iritziz eta onetsiko diren onarpen arauetan oinarriturik, bertan sartzeko baldintzak betetzen badituzte.

2.-Patronatuaren Gobernu Batzordeari dagokio zaharretxean sartzeko baldintzak zehaztea, bai eta sartzeko eskaerak ebaztea eta bertan bizi direnen arauteria ezartzea ere.

5. art. Patronatuaren kontrola eta babesa.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

Altsasuko zaharretxea kudeatzeko Patronatua, bere helburuak bete ditzan, Altsasuko Udalaren aginduen menean egonen da, horrek kontrol eta babes goreneko ahalmenak erabiliko baititu, estatutuetan, foru legerian eta araubide juridiko-administratiboan bere esku uzten den bezala.

II. KAPITULUA

Araubide organikoa

6. art. Gobernu organoak.

Altsasuko "Aita Barandiaran" zaharretxeko Patronatuak gobernu organo hauek ditu:

- a) Gobernu Batzordea.
- b) Batzordeburua.
- c) Batzordeko buruordea.
- d) Kudeaketa arrunterako batzordea.

LEHENBIZIKO ATALA

Gobernu Batzordea. Eraketa eta funtzionamendua

7. art. Gobernu Batzordea.

Gobernu Batzordea Patronatuaren organo gorena izanen da. Gobernu Batzordearen kargu guztiak ohorezkoak izanen dira eta kargudunei ez zaie ordainduko.

8. art. Batzordeko kideak.

1.-Gobernu Batzordeak kide hauek izanen ditu:

- a) Alkatea, batzordeburua izanen dena.
- b) Gizarte Ongizatearen eta Gizarte Zerbitzuen alorreko informazio batzordeko burua den zinegotzia, batzordeko buruorde ariko dena.
- c) Zinegotzi bat gehiago, Altsasuko Udalaren osoko bilkurak izendatua, Udalbatzaren barnean dauden udal taldeei begiraturik.
- d) Herriko medikua edo O.L.T. titularrak, edo bertan zerbitzu egiten dutenak Altsasuko Osasun Eskualde Oinarrizkoaren barnean.



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.altsasu.net

altsasu@altsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

e) Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak edo hark ordezkariak eskuordetzen dion pertsonak izendatutako ordezkari bat.

2.-Patronatuaren babesle pribaturen batek Patronatuari fondo galdura egiten dion ekarpena Patronatuaren Sarreraren Aurrekontuaren ehuneko bi (%2) edo gehiago bada, babesle hori batzordekidea izanen da, hizpide eta boto-eskubide osoa duelarik. Eskubide hori berak edo beraren legezko ordezkariak erabili ahal izanen du, eta hari uko egin ahal izanen dio, Gobernu Batzordeari horretarako idazkia aurkeztuz.

3.-Zaharretxeko zuzendari kudeatzaileak Gobernu Batzordearen bileretara joan beharko du, eta haietan hizpidea izanen du, baina ez botorik.

4.-Altsasu-Olazagutia-Ziordiako Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoen Mankomunitateko gizarte langilea ere Gobernu Batzordearen bileretara joaten ahal da, erabili beharreko gaiek haren partaidetza komenigarri egiten badute.

9. art. Batzordeko kargu hautetsiak.

Diruzain eta idazkari karguak Batzordeko kargu hautetsiak izanen dira. Biak Gobernu Batzordeak hautatuko ditu bere kideen artean, egiten duen lehenbiziko bileran, edo horien postuak hutsik gelditu eta hurrengoan.

10. art. Agintearen iraunaldia eta ordezkagarritasuna.

1.-Batzordeko kideen agintaldiak, gehienez ere, eta lehenago berritzen ez bada, haien izendapena egiten duen Udalbatzak hainbat iraunen du. Zinegotzi direnen agintaldia Udalaren agintaldi bakoitzarekin bukatuko da, eta gainerako agintaldia, berriz, beren karguak uzten dituztenean. Batzordekide batek zinegotzi kargua galtzen badu, edo batzordekide izateko zuen kargua, zein udal erakundek edo zein entitatek izendatu zuen, harek ordezkatu du.

2.-Batzordekideek beren agintea elkarri eskuordetzen ahal diote behin-behinean, indarra duen legerian xedatutakoari jarraikiz. Beti ere, idatziz zehaztu beharko da agintea zein arazotarako eskuordetuko den, eta batzordekide eskuordetzaileak eta eskuordetuak ados daudela agertarazi beharko dute.

11. art. Batzordearen bilkurak.

1.-Gobernu Batzordeak berak erabakitzen duen aldizkotasunez izanen ditu bilera arruntak, eta gutienez hiruhilekoan behin. Aparteko bilkurak, berriz, batzordeburuak edo, gutienez ere, batzordekideen heren batek (1/3) eskatzen duenean.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.altsasu.net

altsasu@altsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

2.-Bilkura sistemari Udalaren osoko bilkura biltzeko aldi bakoitzean diren arauak aplikatuko zaizkio.

12. art. Bilkuren araubidea.

1.-Batzordearen bilkurak baliozkoak izateko gutienez ere kideen erabateko gehiengoak egon beharko du bertan.

2.-Batzordearen erabakiak, oro har, gehiengo soilaz hartuko dira. Berdinketa suertatuz gero bozketa bat gehiago eginen da eta berdinketak irauten badu, batzordeburuaren kalitatezko botoak erabakiko du, legeak aurreikusten duen kasuetan abstenitzeko beharra deusetan ukatu gabe.

3.-Erabakiak gehiengo kualifikatuaz hartuko dira indarra duen legeriak Udalen osoko bilkuretarako hala eskatzen duen kasuetan, bai eta Nafarroako legeriak eta estatutu hauek horrela ezarrita daukaten kasuetan ere.

13. art. Bilkuretarako deialdiak.

Bilkuretarako deialdiak batzordeburuak eginen ditu, bi egun baliodun lehenago, eta eztabaidatu beharreko gaien zerrenda finkatuta. Kideek nahitaez azaldu behar dute bilkuretara, ez azaltzeko bidezko zioak izan eta behar bezala frogatzen dituzten aldietan izan ezik.

14. art. Bilkuren aktak.

1.-Idazkariak bilkura bakoitzeko akta eginen du eta dagokion liburuan ezarriko da, non zehaztuko baitira hartutako erabakiak. Erabakiak biltzen dituzten aktak publikoak izanen dira eta Idazkariak bilkura bakoitzeko akta kautotu bana igorriko die batzordekide guztiei, hurrengo bilkuran onets dezaten.

2.-Aktak orri solteetan idazten ahal dira, batzordeburuak behar bezala beterik, eta azalez tatu beharko dira liburu bat eginez.

LEHENBIZIKO ATALA

Gobernu Batzordearen ahalmenak eta eskumenak

15. art. Batzordearen ahalmenak.

Batzordearen ahalmenak ondoko hauek dira:

1.-Udalari, osoko bilkuran, zaharretxearen ondasun higiezin eta eskubide errealak erosteko, saltzeko, trukatzeko edo bertzela eskuratu, besterendu edo kargatzeko proposamena egitea.



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

2.-Udalari, osoko bilkuran, mota guztietako balore, titulu eta ondasun higigarrien salerosketa proposatzea, horiek ohikoak ez badira, are balio artistiko eta historikoa dutenak ere, eta orobat mota guztietako eskubideak eta gordailu izendunak eratu eta erretiratzea, egoki juzkatzen duenean.

3.-Udalari osoko bilkuran proposamenak egitea, maileguak, kredituak eta finantzaketarako edo errentak eskuratzeko beste edozein bitarteko ituntzeko eta aldatu, kitatu edo likidatzeko.

4.-Edozein pertsona fisiko nahiz juridikori kobratu eta ordaintzea, tributu ahalmenarekin ikusteko duten egintzak ezin egin ditzakeelarik, zerbitzu emateagatiko tasak eskuratzea ezik.

5.-Hornidurari, zerbitzuei eta obrei buruzko kontratuak bere kabuz egitea. Horretarako muga aurrekontuaren % 10 izanen da. Gainerako kasuetan Udalari proposamena egin behar dio kontratua onets dezan.

6.-Helegiteak paratu, auziak sustatu eta bide administratibotik nahiz judizialek jotzea, instantzia guztietan.

7.-Zaharretxearen jarduerarako beharrezko edo egoki diren ahalmenak ematea, eta halaber, egoki juzkatzen diren eskumenak batzordekideei eskuordetzea.

8.-Zaharretxearen onerako egoki diren erregelamenduak eta arautegiak onestea. Bertzeak bertze, horietan zehaztuko dira zaharretxean sartzeko baldintzak.

9.-Erakundearen aurrekontuak hasiera batean onestea, gero Udalak onets ditzan.

10.-Erakundearen urteko kontuak hasiera batean onestea, gero Udalak onets ditzan.

11.-Erakundeko langileen plantilaren proposamena hasiera batean onestea.

12.-Batzordeak bere eginkizunak bete ahal izateko behar diren egintza, kontratu eta agiri publiko nahiz pribatu guztiak egin ahal izanen ditu, behin haiek ituntzeko edo egilesteko baimena jasoz gero, aurreko ataletan xedatu denari jarraikiz.

16. art. Batzordekideei eginkizunak eskuordetzea.

Edozein batzordekideri eginkizunak eskuordetuz gero, kargua doakoa edo ordaindua izanen da Batzordeak zer erabakitzen duen, horren ariora.

17. art. Fiskalizazioa eta kontrola.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.altsasu.net

altsasu@altsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

Gobernu Batzordearen jarduketak Altsasuko Udalaren fiskalizazio, ikuskapen eta kontrolaren menpe egonen dira oro har, batik bat honako ahalmenei dagokienean:

- 1.-Zaharretxearean ondarearen administrazioa eta erabilpena.
- 2.-Estatutu hauen interpretazioa.
- 3.-Ekitaldi ekonomiko bakoitzeko aurrekontuaren berrikuspena eta horren likidazioa.
- 4.-Zaharretxearen egoera orokorraren balantzearen berrikuspena. Balantzea sei hilekoan behin aurkeztuko zaio Altsasuko Udalari, azter dezan.
- 5.-Gobernu Batzordeak arrazoituriko proposamenen bidez edo Altsasuko Udalaren osoko bilkuraren ekimenez Estatutuak aldatzeko, Udalaren osoko bilkurak soilik du eskumena, 15. artikuluko lehenbiziko hiru zenbakietan xedatutakoaz gain.

BIGARREN ATALA

Batzordeburua eta Batzordeko buruordea

18. art. Batzordeburuaren ahalmenak.

- 1.-Batzordeburuak eginkizun hauek ditu:
 - 1.1.-Batzordearen bilkuretarako deialdiak egin, haien buru izan eta zuzendari lana betetzea.
 - 1.2.-Batzordearen ordezkari izatea era guztietako erakunde, agintari, epaitegi, federazio, elkarte e.a.etan.
 - 1.3.-Zaharretxearen agiri guztiak, publiko nahiz pribatuak, sinatzea.
 - 1.4.-Bere sinadura eta oniritzia dela medio Diruzaintzako agiriak baimentzea eta orobat idazkariak aurkeztutako ziurtagiriak.
 - 1.5.-Premiazko kasuetan erabakiak hartzea, Gobernu Batzordearen eskumenen esparruan, baldin eta bilkurarako deia egiteko modurik ez bada, beti ere Estatutuen erranahiari jarraikiz eta hurrengo bilkuran Batzordeari kontu emanaz, erabakia berrets dezan.
 - 1.6.-Zerbitzuen goi mailako ikuskapena eta zuzendaritza.
 - 1.7.-Patronatuko langileei diziplina zehapenak paratzea, indarra duen legerian xedatutakoari jarraikiz.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

2.-Batzordeburuak bere ahalmenetako edozein eskuordetzen ahal dio Batzordeko buruordeari edo Gobernu Batzordeko bertze kide bati, bai eginkizun berezi batzuetarako, bai modu iraunkorrean, artikuluko honetako 1.1 eta 1.5. ataletakoak salbu, baina horren berri eman beharko dio Batzordeari. Halaber, edonoiz ezeztatzen ahal ditu aurrez eginak dituen eskuordezpenak.

19. art. Buruordea.

Buruordeak batzordeburuaren eginkizun berak ditu, hura kanpoan edo eri denean, edo haren postua hutsik dagoenean. Horretarako ez da beharrezkoa batzordeburuaren eginkizunak buruordeari eskuordetzea.

HIRUGARREN ATALA Kudeaketa Arrunterako Batzordea

20. art. Batzordearen ahalmenak.

Gobernu Batzordeari eta batzordeburuari dagozkien eginkizunak ez beste guztiak Kudeaketa Arrunterako Batzordeari dagozkio, estatutu hauetan xedatutakoari jarraikiz.

21. art. Batzordearen osaera.

Kudeaketa Arrunterako Batzordeak kide hauek izanen ditu: batzordeburua, buruordea, halakorik bada, idazkari aritzen den Gobernu Batzordeko kidea, eta zaharretxeko zuzendari kudeatzailea, hizpidea bai, baina botorik izanen ez duena.

22. art. Bilkuren araubidea.

Kudeaketa Arrunterako Batzordeak hilean behin egingen du bilkura arrunta. Bilkuren araubidea Gobernu Batzordeak ezarritakoa izanen da. Kudeaketa Arrunterako Batzordeko buruak batzorde horrek hartutako erabakien berri emanen dio Gobernu Batzordeari, honek egiten duen hurrengo bilkura arruntean.

23. art. Kontrola eta fiskalizazioa.

Gobernu Batzordeak Kudeaketa Arrunterako Batzordearen erabakiak atzera botatzeko ahalmena du. Hala ere, Gobernu Batzordeak ezin du erabaki Kudeaketa Arrunterako Batzordea desagitea.

LAUGARREN ATALA Kargu hautetsiak

24. art. Diruzaina.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

Diruzainak eginkizun hauek ditu:

- 1.-Patronatuaren fondoak zaintzea.
- 2.-Gobernu Batzordeari zaharretxearen egoera ekonomikoaren berri ematea.
- 3.-Patronatuaren fondo eta baloreei dagozkien kobrantzak eta ordainketak egitea, legearen xedapenekin bat etorriz.

25. art. Idazkaria.

Idazkariak eginkizun hauek ditu:

- 1.-Batzordearen bilkuren aktak idaztea eta Batzordeari aurkeztea hark onets ditzan, eta, batzordeburuaren oniritziarekin, berak bakarrik sinatzea.
- 2.-Patronatuaren jarduerari buruzko liburu eta agiriak zain daitezen agintzea.
- 3.-Patronatuari zuzendutako korrespondentziari edo berak igortzen duenari burubidea ematea.
- 4.-Gobernu Batzordearen egintza edo erabakiei buruz behar diren ziurtagiriak luzatzea.
- 5.-Fondoaren kontuhartzailatza egitea.

26. art. Idazkari-diruzaina.

Lagun bera ari daiteke idazkari eta diruzain lanetan. Batzordeko edozein kide izan daiteke, baita Batzordeko zuzendari kudeatzailea ere.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.altsasu.net

altsasu@altsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

III. KAPITULUA

Araubide ekonomiko finantzarioa

27. art. Gaitasun ekonomikoa.

"Aita Barandiaran" zaharretxeko Patronatuak bere nortasun juridikoa duenez gero, ahalmena izanen du zaharretxearen jarduera eta administrazioarako eta hark dituen xedeak betetzeko behar diren eragiketa ekonomiko finantzarioak egiteko, indarra duen legerian eta estatutu hauetan ezarritakoari loturik.

28. art. Inbentarioa.

Behar den inbentarioa prestatuko da, ondasun suntsigarriak kenduta, eta hura, urteoro, urtarrilean berrituko da eta Udalbatzak osoko bilkuran onetsiko. Inbentarioak bere egitura izanen du horretarako, eta Udalaren inbentarioaren atal izanen da.

29. art. Ondarea.

Bere xedeak betetzeko Patronatuari atxikitako ondarearen ondasun eta eskubideak hauek izanen dira:

1.-Egin behar duen zerbitzurako, Altsasuko Idertzagain karrikako 1ean dagoen eraikin osoa, Patronatuaren esku utziko dena, bere xedeak bete ditzan, bertan dagoen tresneria guztiarekin. Eraikin hori ondasun demanial bat da, zerbitzu publikokoa, eta Patronatuari atxikia bere zerbitzua egin dezan, erabiltzeko eskubidearen bidez.

2.-Egin behar duen zerbitzurako, zaharretxean dauden ondasun higigarriak, suntsigarri nahiz suntsieszinak. Horiek Udalbatzaren ondareko ondasunak dira eta Patronatuari atxikiak daude bere zerbitzua egin dezan, erabiltzeko eskubidearen bidez.

3.-Egoiliarren ekarpenak, eta horien ordezin edozein pertsona nahiz erakunde publiko nahiz pribatuk ordain ditzakeenak.

4.-Bere erresebakiko fondoekin egin inbertsioen korritu eta etekinak.

5.-Dirulaguntzak, dohaintzak, legatuak eta nolana ere lege eskuratzen dituen gainerako ondasun eta eskubideak. Inork patronatuari oinordetza-eskubideak emanaz gero, inbentariarako onartu beharko dira.

6.-Altsasuko Udalak eta Nafarroako Gobernuak Patronatuaren funtzionamendu eta jardueretarako ematea erabakitzen duten ekarpena. Altsasuko Udalaren ekarpena Patronatuaren Gastuetarako Aurrekontuaren ehuneko bost (%5) izanen da.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.altsasu.net

altsasu@altsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

30. art. Fondoaren xedea.

1.-Erreserba fondoak modu seguru eta errentagarrian inbertituko dira, eta Patronatuaren Gobernu Batzordeak ezarritako arauekin bat.

2.-Arestian aipatutako ondasun eta eskubideekin, bai eta horien etekinekin ere, urteko aurrekontuari aurre egingen zaio.

31. art. Egoera Orokorraren Balantzea.

Urtero, lehenbiziko bi hiletan, Patronatuko Gobernu Batzordeak zaharretxearen Egoera Orokorraren Balantzea aurkeztuko dio Altsasuko Udalari eta honek aztertu eta fiskalizatu egingen du. Udalak, balantzea onetsi aurretik, perituaren irizpena eskatu behar dio nahitaez Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko Ekonomia zerbitzuari. Irizpen hori ez da lotarazlea.

32. art. Sinatzeko ahala.

Kontu korranteak edo libretak ireki eta kitatu, itzulketak eta taloiak sinatu, transferentziak agindu eta erakunde finantzario eta ofizialetan Patronatuaren fondoak beste edozein modutara erabiltzeko orduan, sinatzeko ahala izanen dute batzordeburuak, diruzainak eta, diruzaina bera ez bada, zaharretxeko zuzendari kudeatzaileak. Haietako biren sinadura mankomunatu beharrezkoa eta aski izanen da.

Aurrekontuak eta kontuak

33. art. Aurrekontua.

Gobernu Batzordeak onetsitako aurrekontuak Altsasuko Udalari igorriko zaizkie, honek aztertu, fiskalizatu eta, bidezko izanez gero, toki entitatearen aurrekontu orokor bateratuan sar ditzan.

34. art. Aurrekontuaren egitura.

Patronatuaren aurrekontuen eta kontu orokorren egitura, toki entitatearen aurrekontu eta kontuetarako ezarritako erregela eta arauak egokituko zaizkie, hauetan eranskin gisa agertuko direlarik.

35. art. Likidazioa eta kontu orokorrak.

Patronatuaren aurrekontuen exekuzio eta likidazioa, halaber, toki entitatearen aurrekontuei aplikatu dakizkiekeen arau orokorrek zuzenduko dute.

36. art. Kontabilitateko agirien azterketa.



Altasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

Patronatuaren kudeaketa ekonomiko osoa, hau da, eskubide eta betebeharrak ekonomikoak sortzen dituzten egintza, agiri eta espediente guztiak aztertu eta kontatzea, toki entitatearendako egiten den era eta baldintza beretan egingen da.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

IV. KAPITULUA Fiskalizazioa eta tutoretza

37. art. Fiskalizazio eginkizunak.

Altsasuko Udalak eginkizun hauek izanen ditu:

1.-Patronatuaren zerbitzu eta ekintzen zuzendaritza, zaintza eta tutoretza, eta bai haien kontrola eta fiskalizazioa ere.

2.-Patronatuak kudeatu beharreko arloen exekuzioa bultzatu eta ikuskatzea.

3.-Patronatuko langileen plantilak finkatu, handitu edo murriztea, Gobernu Batzordeak aldez aurretik proposamena eginda. Aurretiaz irizpena eskatu behar zaio nahitaez Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuari. Irizpen hori lotarazlea izanen da.

4.-Ondasun higiezinak besterendu, laga edo kargatzea.

5.-Batzordeburuaren egintzen eta Gobernu Batzordearen nahiz Kudeaketa Arrunterako Batzordearen erabakien aurka paratzen diren helegiteak ebaztea.

38. art. Fiskalizatzeko ahalmenak.

Altsasuko Udalak ahalmena izanen du:

1.-Gobernu eta administrazio organoetatik zeinahi agiri edo txosten eskuratzeko.

2.-Egoki juzkatzen dituen ikuskapenak egiteko.

V. KAPITULUA Araubide juridikoa

39. art. Helegiteen araubidea.

Batzordeburuaren ebazpenek eta Gobernu Batzordearen erabakiek ez diote bukaera ematen administrazio bideari. Hortaz, haien kontra helegite arrunta para daiteke Altsasuko Udalaren osoko bilkuran. Helegite horiek ebazteko hartzen diren erabakiek, berriz, administrazio bideari bukaera emanen diote eta Nafarroako toki entitateen egintzen kontra para daitezkeen helegiteak paratu ahal izanen dira haien kontra.

40. art. Ordezko araubide juridikoa.



Estatutu hauetan aurreikusten ez den orotan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legean, administrazio prozedurari buruzko Estatuko legerian, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean eta kontratazio administratiboari buruzko Estatuko legerian xedatutakoari jarraikiko zaio.

VI. KAPITULUA Langileak

41. art. Lan-izaera.

1.-"Aita Barandiaran" zaharretxeko Patronatuaren zerbitzuko langileak lan-kontratudunak izanen dira. Patronatuak behar adina langile izanen du; haien kopurua, kategoria, eginkizunak, soldatak eta gainerako ordainsariak Gobernu Batzordeak zehaztuko ditu eta Udalbatzari proposatuko dizkio osoko bilkuran.

2.-Udalbatzak osoko bilkuran langileen zerrenda, kategoriak, eginkizunak, soldatak eta gainerako ordainsariak onetsi aurretik, nahitaez jaso beharko da Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren aldeko irizpena. Irizpen hori lotarazlea izanen da.

42. art. Patronatuarekiko harremanak.

Barne Araubiderako Erregelamendurik onesten baldin bada, hartan ezarriko dira zaharretxeko Patronatuarekiko harremanak, baita ematen diren xedapen berariazkoetan eta erabakitzen diren hitzarmen kolektiboetan ere.

43. art. Langileen izendapena eta araubidea.

1.-Lan-kontratudunen izendapena Gobernu Batzordeak egingen du, kategoria guztietarako.

2.-Lan-kontratudun horiek Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onetsi zuen abuztuaren 30eko 251/1993 Foru Dekretu Legegilearen IV. tituluko II. kapituluak eta zehatzago Langileen Estatutuak xedatutakoaren agindura egonen dira.

VII. KAPITULUA Estatutuak aldatu eta Patronatua desagitea

44. art. Estatutuak aldatzea.

Estatutuak aldatzeko, onespenerako egin ziren tramite berberei jarraiki beharko zaie.

45. art. Erakunde autonomoa desagiteko kariak:



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

Patronatua desegiten ahal da:

1.-Udalaren kudeaketa sistema aldatzeagatik edo Udalak uko egiteagatik, Udalak osoko bilkuran hala erabakitzen duenean.

2.-Patronatua eratu zenean ezarri zen xedea ezin bete denean.

3.-Kudeaketan etengabeko diru galerak gertatzen direnean, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legean xedatutakoari jarraikiz.

4.-Indarra duen legerian aurreikusitako gainerako kasuetan.

46. art. Patronatua desegiteko prozedura.

Patronatua desegin dadin, Altsasuko Udaleko kideen gehiengoak hala erabaki beharko du osoko bilkuran, baina ez da beharrezkoa izango erabateko gehiengoa.

47. art. Desegitearen ondorioak.

1.-"Aita Barandiaran" zaharretxeko Patronatua desegiten baldin bada, Udala haren ondorengo unibertsala izanen da haren eskubide eta betebeharrak guztietan, eta desegindako erakundearen aktiboan biltzen diren ekarpen eta gehikuntzen dotazioa Udalaren eskura pasatuko da. Ondarea likidaziorako eta bete gabe dauden eginbeharrak betetzeko erabiliko da, eta horren ondotik ezer geratzen bada, gerakina gizarte ekintza berdintsuetarako erabiliko da.

2.-"Aita Barandiaran" zaharretxeko Patronatua deseginez gero, Patronatuak kontrataturiko lan-kontratadunak kalera botako dira, hala finakoak nola aldi baterakoak. Langileen kaleratzeak gaur egun indarra duen gizarte arloko legerian aurreikusitako ondoreak izanen ditu.